Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Inaxi Oiartzabal Etxeberria*

*Oiartzun, Gipuzkoa (1929)*



Aurkibidea

**Biografia**



Inaxi Zamora baserrian jaioa da. Nortasun handiko emakumea dugu, baserrian gogor hazia eta hezia. Bizimodu gogorra eduki badu ere, edo horretxegatik beragatik, gaur egungo aldaketa gehienak ongi hartzen ditu: eliza kontuak direla, emakumearen egoera dela... hitza bere tresna dela erakutsi digu; neurriko esaera eta hitzak jartzen dizkio azalpen bakoitzari.

# Zintak

## OIA-063

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2007-10-29
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane
- **Transkribatzailea(k)**: Errazkin, Aitor

## OIA-064

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2007-10-29
- **Iraupena**: 54 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

## OIA-065

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2007-10-29
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

# Pasarteak

## 1. Egun osoan lanean

- **Erref**: OIA-063/004
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:11:22. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Manuel oso gazterik hasi zen lanean: hasieran, Errenteriako Laneran; gero, Astilleroetan; eta ondoren, Luzuriagan, erretiratu arte. Inaxik baserrian nahiko lana bazuen. Oso gazterik hasi zen mendira iratzeetan. Menditik etorri eta baserriko lanak. Baserriko lanaz gain, etxekoak. Amona sukaldean arrosarioa errezatzen eta beraiek ikuilutik erantzuten. Zamaka.

**Transkripzioa**
- Hoi lana ematen diazu kontatzeko!
- Ni, hamabi urte kunplituta, [aurreneko] hasi nitzan lanian. Errenteian, Fabril Lanera, ez dakit aitzia bazun... Bota zen. Han. Zortzi ordu, hiru pezta eunian. Hariya lotzen. Lana itten zen, ta haik'e lotzen.
- Nik esango zaittut... A, bueno, segi...
- Soldau joan arte. Soldau eaman tziatenian, ta etorri nitzenian ez nintzan hara jun. Han lanik etzen itten, biño irabazi're ez. Han ez zinen zikintzen

baino, ta handik alde in gendun.
- Lanera?
- Lanetik alde in nun. Ta enkargatuak berriz: “Honea heldu al haiz uaindik? Hemen ez duk ezer irabazteko, moteil!” Ta… martxa in nun.
- Ta noa jun… Geo, beste…
- San Pedroa. Astillerota.
- A...
- Han ere beste bi urte in nittun, ta hua’re ez zitzaiten asko gustatzen, ta… Geo,… Luzuriagan sartu nintzen. Luzuriagan hogeita beatzi urte in nittun, pasiak… Ta jubilaziyua hirurogei urtetan eman ziguten, ta kitto.
- Ja… Nahiko lan inta!
- Uan ni(k) sango zaittut: hamalau urtetako hasi nitzan mendira iatzian (iratzea) bila, iatzia baakizu zer den... Bale. Aittona difuntukin, mendira, hara. Hamabost-hamasei urte nittun denboan, iatzia ebakitzen zuten, ta behiak lotzen zittuzten uztarriyan, behiak hartu, gurdiya jarri harrei, ta mendira… Hala, segi taka-taka-taka-taka-ta… Mendira jon ta, geo, genun irriyo bat; mendiya ayeka baten erdiya, ta beste erdiya atera in behar zen iatzia. Zamaka in zamakin edo bestela jorra erdiya jarri gurdiyai, ta goitti kartzen genun ta hura bota, lurrea. Berriz atzea jon, beste erdiya gurdiyan jarri, ta goitti ekarri. Ta bota zenun hua, harri gañin jarri. Gurdiya ondo jartzen zenun denboan, etxea. Etxea etorri. Ilunakin iual etortzen giñan... In ber izaten zien metak, ilunduta igual. Anaia, sega hartu ta mazka ebakitzea, bestia, metan gañea, ta ni sardia hartu ta gurditikan, iatzia botzea. Meta iten gendun denboan, bueno, oain segi, txokorra bota behiai errapea, ta txokorrai eana(ra)zi, azpiyak atea, azpiyak egin, behiai jaten eman, asper-asper iña, ta, geo, amona difunta sukaldin arrosayua errezatzen... Bai, hori bai, beak errezatu beharkou!
- ... Ta geo, ikullutikan gu, kontestatzen! Hoi, hoi egiya da, hoi egiya da… Konpa(ra)zio batea, sukaldia hemen bezela ta ikuilua hor bezela edo, hola genun... Ja aitzen genun...
- Klaro, dena bihan... Klaro…
- Bai… Bai, dena bihan, aitzen genun, biño amona sukaldian arrosayua errezatzen, ta guk ikuillutik kontestatu… Ta in beharko ganea, e! Dudik jarri! Hua denak itten genittun denboan, afai bokarua in, ta hotzak akatzen, sua're itzaliya izaten genun, hotzak akatzen ohira. Hala! Hurrungo goizian, jaiki, goiz, zazpiyak laurden gutxi, zazpiyak, baratza berdurak jartzea. Ama Errenteira joaten zen esniakin, ta guk jarri ber genun berdura esne hartzailientzako: tipula edo, porrua edo, tomatia edo… Zena zela. Haik bildu, pronto jarri xexto batin, behiak jeitxitzen zittun amak, marmitetan esnia jarri, astua preparatu, ta ama, haik saltzea. Ta gu, itxeko lanak itten: bazkaiya jarri, azienda gobernatu, berriz azpiyak atera, mazka ebaki, ta eman. Ta kitto. Segi hor. Ta, goitti jon, ohiak in, etxia txukundu… Denak.

## 2. Taloa eta ogia

- **Erref**: OIA-063/006
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:18:53. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena**:
Gorriak ikusia da Inaxiren ama. Gaur egun taloak egiten ezagutu du jende askok. Izan ere, gaztetatik hasi zen Inaxi taloak egiten. Ogia ere izaten zen, errazionamenduan banatzen zutena, baina ez dakit zer baino gogorragoa. Irina Nafarroatik ekarri behar izaten zen.

## 3. Nafarroara irin bila

- **Erref**: OIA-063/007
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:24:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Manuel gogoratzen da arto irina Nafarroatik ekartzen zutela. Taloa egiteak lan handia zuen, eta hura ere ez zen sobera izaten, irina falta izaten baitzen. Gosea kentzeko, artoa txikitu eta esnearekin egosiz jaten zuten. Ttentteka jarri. Surtan.

## 4. Galtzerdi txuriak jantzi nahi

- **Erref**: OIA-063/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Josten Ollokinen ikasi zuen. Galtzerdiak eta oinetakoak eskas ziren orduan eta galtzerdi txuriak mezarako bakarrik izaten ziren. Baina Inaxik galtzerdi txuriak jantzi nahi eta haren peripeziak! Puntua nerez ikasi nun, librui ta beira. Ni izandu nitzan ollanda bat. Holaz. Hika.

## 5. Blusa josten, gordeka

- **Erref**: OIA-063/010
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:28:45. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Anaiaren alkandorarekin beretzako blusa bat egin zuen Inaxik. Amaren gordean egin zuen. Zipiztu.

## 6. Goiz erretiratu behar

- **Erref**: OIA-063/011
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena**:
Ezkongai zeudenean, Manuel Inaxik lanak bukatu zain egoten zen. Inaxi berandu erretiratzen zen dantzalditik eta etxean zigorra izaten zuen zain. Garai hartan, 10etarako etxean egon behar zen. 

## 7. Nobio kontuak

- **Erref**: OIA-063/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena**:
Bileratik berandu joaten zelako, amak afari gabe uzten zuen. Inaxiren amak ez zion uzten bikoteari bakarrik egoten. Inaxik bost edo sei mutil izan zituen Manuelen aurretik. 

## 8. Nobio zuhurra

- **Erref**: OIA-063/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:37:10. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Nobio batek ezkontzeko eskatu zion Inaxiri, baina mutil zuhurra zela eta, utzi egin zuen.

## 9. Atxarraztalua sufiziente ibiliko duen emakumea behar

- **Erref**: OIA-063/017
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:39:10. **Bukatu**: 00:39:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Beste nobio batek ere ezkontzeko eskatu zion eta Inaxik ea zein baldintza jartzen zion galdetu zion. Mutilak halaxe erantzun zion: atxarraztalua sufiziente ibili behar zuen emakumea behar zuela. Hura ere utzi egin zuen Inaxik.

## 10. Nobio gezurtia

- **Erref**: OIA-063/019
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena**:
Inaxiri nobio batek gezurra esan zion, eta utzi egin zuen. Aurretik oparitutako ordularia ere itzuli zion; mila puska eginda, baina baita itzuli ere.

## 11. Elkarrekin hasi zirenekoa

- **Erref**: OIA-063/020
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:45:25. **Bukatu**: 00:47:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena**:
Manuelekin nola hasi zen. Tolosara joan ziren, inauterietara. Ordularia oparitu zion Manuelek.

## 12. "Adoración nocturna"

- **Erref**: OIA-063/021
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:47:18. **Bukatu**: 00:50:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

**Laburpena**:
Manuel "Adoración nocturna" eliza taldekoa zen. Errenteriara jaitsi eta gaua elizan pasatzen zuten. Ehiztariak eskopetarekin joaten ziren goizeko lauretan. Herniora asko joaten ziren, trenez eta autobusean. Lehendabizi, oinez ibiltzen ziren, eta, gero, bizikletan. Hika.

## 13. Zamalbidetik Errenteriarako bidea

- **Erref**: OIA-063/022
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:50:02. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena**:
Errenteriara oinez ibiltzen ziren, Zamalbidetik. Bide eskasak ziren. Alpargatekin joan eta kalean zapatak jantzi. Astoa ere trabatuta gelditzen zitzaien. Asto bat ito egin zen, gainera. Bidea konpontzen hasi ziren, baina gerra etorri eta bertan behera gelditu zen. Gero, Lapaza medikua alkate jarri zenean, errepidea egin zuten.

## 14. Gerra garaiak

- **Erref**: OIA-063/023
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:52:55. **Bukatu**: 00:55:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena**:
Inaxi justuan atera zen bizirik gerran. Arropak zabaltzen ari zela, Munuanditik tiro egin zioten. Zentimetro batzuengatik libratu zen. Soldaduek baserritik dena eramaten zuten. Ezin zen ezer esan. Udaletxean entregatu ere egin behar izaten zen, eta, etxean, goseak. Manuelen etxetik 16 oilasko eraman zituzten. Hainbeste lan eta penarekin, beharko igandeetan dibertitu.

## 15. Bilerak non-nahi

- **Erref**: OIA-063/025
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:56:16. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Frailenean bilera egiten zen. Alpargatak ederki urratzen zituzten dantzan. Unzaskon ere jotzen zuten soinua, Listorreta inguruan. Garai hartan ez zeuden orain bezalako aurrerapenak, baina jendea enteratzen zen dantza non izaten zen.

## 16. Baserrian beti lana

- **Erref**: OIA-063/027
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:00:17. **Bukatu**: 01:02:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Manuel ere aritzen zen baserrian lanean, lantegitik etorrita. Belarretan, artajorran, behiak jaisten, azpiak ateratzen, arrosarioa errezatzen... Nahikoa esne ez sukaldean, eta errapetik ahoko zulora. Baserria lotua da. Inaxiri gehiena hazienda zaintzea gustatzen zitzaion.

## 17. Hazienda pallakatu

- **Erref**: OIA-064/001
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:45

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Hazienda gobernatzea ez zen jaten ematea bakarrik: garbitu ere egin behar izaten zen. Eskuilarekin garbitu ondoren, animalia goxatu egiten zen, pallakatu, eta animaliak eskertu egiten zuen.

## 18. Iratzetan

- **Erref**: OIA-064/002
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:03:30

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Behien azpitarako iratzea ekarri behar izaten zen. Lan handia zuen. Egun guztia hartan aritu eta gero ere eguneko betiko lanak egin behar izaten ziren. Iratze-lekuak non zituzten. Toponomia: Unzasku, Listorreta, Urdau (urdaburu), Malbazar... Segan aritzea emakumeentzat gogorra zen.

## 19. Etxean eta kanpoan lanean

- **Erref**: OIA-064/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:04:30

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Manuel lantegitik etorrita ere baserrian lanean aritzen zen, eta askotan, baita auzolanean ere.

## 20. Esneari ura

- **Erref**: OIA-064/006
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:08:55

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena**:
Behin, xanistebanetan, postrea prestatu zuen Inaxik. Marmitatik esne pixka bat hartu, urarekin bete, eta arroz-esnea egin zuen familiarentzat. Baina aita

haserretu egin zitzaion, esneari ura botatzea bekatua omen. Txantxilla. Atetzen tzeian.

## 21. Zer jan, huraxe eman

- **Erref**: OIA-064/008
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:14:00

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Aguazilak baserritarrak zaintzen aritzen ziren; esneari ura botatzea galarazita zegoen. Ur pixka bat botaz gero ez da nabaritzen. Haurrentzat ere ura botatzen zitzaion behi-esneari; bestela, lodiegia izaten zen. Behi guztiek ez dute esne berdina ematen. Lehen, behi zuriak ziren hemen; esne lodiagoa izaten zuten. Uztarrian dabilen behiak ere ez du esnea hain goxoa izaten. Animaliari zer eman jateko, halaxeko haragia: txerriari ogi asko emanda, gizen gehiegi; giñarra ateratzeko, artoa edo ezkurra. Atak haragia belaka. Oiloari artoa ez bazaio ematen, arrautzak txuriagoak. Bazenekizun.

## 22. Haziendaren gobernua

- **Erref**: OIA-064/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:15:00

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Garai batean, hazienda ongi gobernatzen zen; belar asko egiten zen. Orain pentsua ematen zaio. Oiloak kaiolan arrautzak azkarrago egiten ditu, baina kanpoan dabilenak arrautza hobea.

## 23. Baserritik lantegira

- **Erref**: OIA-064/011
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:18:25

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

**Laburpena**:
Manuel arotza da. Laneran ikasi zuen arotz. Soldadutzaren ondoren, San Pedroko astilleroeta joan zen. Barkuan arotza behar zela-eta joan zen, baina itsasoan mareatu egiten zen. Gero hasi zen Luzuriagan.

## 24. Luzuriaga

- **Erref**: OIA-064/015
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:27:20

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

**Laburpena**:
1960an, 3.000 langile zituen Luzuriagak. Makinak sartu zirenean, langileak kanpora. Land Rover-aren motorra egiteko minutu bat pasatzen zen. Makina berriekin, 43 segundoan bost motor egiten ziren. Gero itxi egin zen eta Lasartera joan ziren. Nafar asko etorri zen Pasaiara ikastera. Zalantza zuten lantegia edo baserria eta Manuelek esaten zien hobe zutela lantegia. Gero esan izan zioten fabrikan hobeto zeudela.

## 25. 30 hilabeteko soldadutza

- **Erref**: OIA-064/017
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:29:55. **Bukatu**: 00:31:05

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena**:
Manuelek Burgosen eta Albaceten egin zuen soldadutza. 30 hilabeteko soldadutza. Alfer-alferrik.

## 26. Konfesioak

- **Erref**: OIA-064/019
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:35:00

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Konfesio kontuak. Apaizek matrimonioaren bete-beharrak ongi egiten ziren galdetzen zuten garai batean. Baraua ez hausteko aurpegia garbitzeko beldurrez ibiltzen ziren. Gauzak aldatu dira eta horrela hobeto, dio Inaxik.

## 27. Baltsa dantzatzea, bekatua

- **Erref**: OIA-064/021
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:37:10

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Txikierdin baltsa dantzatu eta txibatoek apaizari esaten zioten. Zigortu egiten zituzten, kongregazioko zinta gabe jauna hartzera, eta jendea esamesaka. Hika. Geok aitzen genittun.

## 28. Elizaren aldaketak

- **Erref**: OIA-064/023
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:48:40

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Inaxik dio jainkoa bera izango dela, baina legeak jartzen dituztenak ezetz. Manuelek erlijioak indar handia zuela dio. Albaceten soldadutzan gertatua kontatu du: mezatan barre egiteagatik tenienteak kargua hartu zion soldaduari. Lehen, haurra hurrengo egunean bataiatu behar zen; orain, hilabeteetara. Inaxiren garaian, haurra eduki eta 8 egun etxetik atera gabe egon behar zen; ateratzekotan, teilarekin egin behar zen. Egin gabetenikan.

## 29. Desagertutako baserriak Ugaldetxon

- **Erref**: OIA-065/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:04:00

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Ugaldetxon aldaketa asko egon dira azkeneko urteetan: etxe asko egin dira, errepideak auzo erditik... Industrialdeak egiteko baserri asko bota ziren. Zuaznabar errota oraindik zutik dago, baina asko bota zituzten: Palazio, Txoko, Olai, Juansendo, Olazar...

## 30. Ugaldetxo, lehen

- **Erref**: OIA-065/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:04:20. **Bukatu**: 00:05:05

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Ugaldetxon orain baino zerbitzu gehiago zeuden garai batean: ferratokia, ile-apaindegia, denda...

## 31. Etxeen prezioak

- **Erref**: OIA-065/007
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:11:50

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena**:
Gaur egungo etxebizitzen prezioak ez du zerikusirik orain dela 50 urtekoekin.

Garai hartarako ere garestiak ziren, baina eskuragarriak. Inaxi eta Manuelek gogoan dute auzoko etxe bat 15.000 pezetan (90 euro) jarri zutela salgai.

## 32. Salataria eta fusilatua I

- **Erref**: OIA-065/014
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:38:30. **Bukatu**: 00:40:50

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena**:
Emakume batek salatu, eta San Pedroko bat fusilatu egin zuten. Fusilatutakoaren alabari egurra emateko agindu zion Manueli nagusiak. Hezurrak atera zituztenean, emazteak ezagutu egin zuen gizonarenak zirela; gerrikoarengatik ezagutu zuen. Fusilatuaren eta salatariaren semeak biak apaizak ziren eta elkar ezagutzen zuten. Kontzientzia astoak jana.

## 33. Salataria eta fusilatua II

- **Erref**: OIA-065/016
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:42:55

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena**:
Fusilamendutik ihes egin zuen batek eta baserri batera iritsi zen. Hango emakumeak salatu egin zuen. Ihes egin zuen, baina harrapatu egin zuten falangekoek eta bertan hil zuten. Salatariaren eta fusilatuaren semeak apaizak ziren, eta, elkarrekin zihoazen batean, salatariaren semeak hildakoaren semeari erakutsi zion aita hil zuten tokia.

## 34. Senarraren mende

- **Erref**: OIA-065/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:45:50

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Baziren emaztearen mende bizi ziren gizonak, baina normalean alderantziz izaten zen. Inaxik dio gizonari obeditu egin behar zaiola erakutsi ziotela, baina bera ez zegoen ados horrekin.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-10-26*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com